




TOLOSA ▶

Berdintzea (3-3) lortu du Tolosak Ordizian

Oruek sartu zituen
hiru golak; bat azken
minutuan penaltiz ▶ 6

TOLOSALDEA ▶



OLATZ HERNANDEZ

Udaberriko arropak eta oinetakoak, koloretsuak

Berrikuntza nagusia
izango da dendetan
aurten: trikinia ▶ 4-5

TOLOSA ▶

Salmenta handirik ez azokan ▶ 6



943 69 34 81
ADUNA

Kirol poltsa susmagarria zartarazi du Ertzaintzak Tolosan, Gorostidi aurrean

EGUERDIAN ▶ Larramendi kaleko
enpresaren atarian atzeman zuen
Ertzaintzak poltsa atzo eguerdian

ARROPA ▶ Badaezpada, zartarazi
egin zuten ertzainek poltsa; arropa
baino ez zuen azkenean barruan ▶ 7

«Zeinu hizkuntzak duen garrantzia» azpimarratu dute Gorren kongresuan

TOLOSA ▶ Parte-hartze handia izan zen atzo Gaingintzen, Per-
tsona Gorren Elkarteak antolatutako kongresuan. Gorren komu-
nitateak entzuleen «laguntza behar» duela, eta zeinu hizkuntzak
«berezizko garrantzia» duela esan zuten. DANI GIBELALDE ▶ 6



IRATXE ETXEBESTE

• 2004ko maiatzaren 13-14-15 eta 16a • Ibarra •
<Ordutegia>
ireki 18:00tan
itxi ostegunean 00:00ean
 ostiralean 01:30ean
 larunbatean 02:00ean
 igandean 00:00ean

Egitarrak:
 osteguna 13:
 18:00en pabisa inaugurazioa
 21:30en "BAGELA & PANGA" abes-
 taria
 ostirala 14:
 18:00etan festa
 larunbata 15:
 18:30etan sotoa jantzi
 igandea 16:
 8:30etan sotoa jantzi
 18:00etan

IBARRAKO
1. Garagardo
Festa
 maiatzaren 13-14-15 eta 16a
 "1. Fiesta de la Cerveza"
 1984-1994

Musika
 Jangela
 2 karpa
 Jaki tipikoak
 Herriko DJ-ak
 Kultur ekitaldiak
 18 garagardo mota
 Bidai eder baten zozketa

HITZAren harpidedunen artean egindako
 zozketan, 2 lagunentzako afariaren
 irabazle suertatu da:
Agustin Izaspi Bengoa
BELAUNTZA

LANDARRI, S.L
 Hilerrien ustiapena eta kudeaketa

Kanposantuko Lanak

- Ehorzketak
- Lurpetik ateratzea
- Gerakinen lekualdaketa
- Gerakinen errausketa
- Errausketa zerbitzua
- Hilerrjaren proiektuak
- Hilerrjaren eraldaketak
- Eraikuntza ezberdinak
- Hilobien apainketa
- Hilariak
- Panteoiak
- Hilobiak
- Estelak
- Fotozeramikak
- Estanpaziozko teknikak

Santa klara, 1 behe - 20400 TOLOSA
 Tel.: 943 67 01 14 - Fax: 943 34 04 67 • Zerbitzu iraunkorra: 610 552 552
 posta elektronikoa: landarris.l@terra.es



Uzturretik ▶
AGUSTIN AMIANO

Kezkaz betetako kaxa

Hamabik dozena osatzen dutenez, lehen kaxa bete berria dut urtez eta nire herri txiki honetatik salto egiteko irrikaz nago oraintxe. Primeran, batzutan segundak, moldatzen naiz nire taldean eta herri-ritik hirirako pausoa ematen hasi berria naiz. Taldean, noski!

Baina bakarrik moldatu beharreko eguna ere bertan dut, hala izango dut, eta honek begiak zabal arazten dizkit behin baino gehiagotan. Egia da nire gurasoen handik norako nahiz gertuko lagunekin ondo moldatzen naizela, baita eskolan ere tirrikitarakatik firiri-fararara di-da batean pasatu naizela. Baina *no te entiendo* edo *¿cómo?* hitz madarikatuak inoiz nire belarri zuloetara iristen badira, nire aurpegiak ortzadarretik zein kolore aukeratuiko duen pentsatzeak halako egonezina sorrazten dit.

Edo *un foto* nahiz *xiete regalizes* bezalako hitzek nire hortzetatik ihes egitean, aldamenetik entzungo dudak edo irudituko zaidan algara hausnartzean dardarka jartzen naiz. Hobeto esanda, amorru bizian jartzen naiz. Eta neureari eutsi behar diodala egiten dut promesa, nahiz eta haizeak erraz aireratuko duela jakin.

Zer arrazo! Hizketan dakit, bada! Eta nire guraso nahiz aiton-amonengandik jasotako hizkuntza partxerik edo zulorik gabe erabiliko dut, noski. Dotorea izango da gainera, nornahik bereganatzeko edo oso-osorik jasotzeko modukoa, agian. Sukalde epeleko edo baso hezeko kutsu garbiko hizkuntza, kutsatu gabeko kutsua.

Baina inor jabetuko al da horretaz? Inor jabetuko ote da daukagunaz, edo gabeziaren soilik zirikatu naute? Bigarren kaxa urtez betetzerako ederkia osatuko ditut kezka hauen erantzunak.

KOMIKIA ▶ GORKA SALABERRIA



IDOIA ELOSEGI ▶ ARTISTA

«Energia, goxotasuna, eguzkia...; bizia da argia»

Artisau erara lanparak egiten ditu Idoia Elozegi artista tolosarrak. Eskultura ere, «haren pasioa», lantzen du. Argia lanparetatik haratago dagoela dio

LEIRE MONTES

Arte Ederretan lizentziatu eta gero, eskultura lantzen hasi zuen bere ibilbide profesionala Idoia Elozegi artista tolosarra. Gero, duela hamar bat urte, «zerbait funtzionalagoa» egiteari ekin zion: lanparak, artisau erara. Egun, bi lanetan dihardu. Tailerrera lanera joan aurretik aritu da solasean Hitzarekin.

Eskulturak ala lanparak egitea. Zer duzu nahiago?

Karrera amaitu eta hainbat urtetan eskulturari aritu nintzen. Eskultura da nire pasioa. Baina aterabiderik ez zuela ikusita, zerbait funtzionalagoa egiten hasi nintzen: lanparak, artisau erara. Artisautzara, diseinura bideratu nuen nire lana. Batzuek nire eskulturei argia jarri

niela esan zidaten. Eta orain hara non bi lanetan ari naizen: urrian jarriko ditut nire eskulturak Iruñeko Gotorlekuan.

Zure lanparetako bat erosi nahi dut. Nora jo dezaket?

Ez dira dendetan saltzen. Artisau azoketan eta ibiltzen naiz hara eta hona. Hasi berritan Bartzelonara eta Madrilera joan nintzen, eta denda batzuetan saldu nituen. Bilbon ere izan nitzen. Esperientzia onak izan nituen; baina txarrak ere bai. Eta orain azoketan eta enkarguz saltzen ditut. Bezero finko batzuk badituz; ez dira asko, baina bai fidelak.

Nik bat enkargatuko dizut orduan. Nondik hasiko zara?

Ilarran hasiko naiz lanean, tailer batean; hor egiten ditut burritzoko egiturak. Hori da gehien kostatzen zaidana. Behin es-

truktura bukatuta, etxean jarraitzen dut lanean. Kolorezko zetazko paperak jarri, kola transparentea eman... Eta, bukaera, suaren aurkako berniza ematen diot, berotasuna sahiesteko eta kolorea luzarotan mantendu dadin.

Zer forma emango zenioke?

Zuk nahi duzuna. Bezeroak eskatzen duena egiten dut normalean. Hori bai, ziur forma konikoa edo borobildua izango dela. Ez bainaiz batere geometrikoa.

Hamar urte eta gero ez al zaizkizu ideiak amaitu?

Askoz zailagoa egiten zait bi lanpara berdinean egitea diseinu ezberdinak asmatzea baino. Hasieran forma arraroagoak egiten nituen, baina horiek egokitzen naiz salmenten arabera. Faseka egin izan ditut:

kolorerik gabekoak, loreak, animaliak, hankadun lanparak... Orain, loreak dira salduenak. Aldizkari-gordetzekoak eta lorontziak ere egiten ditut.

Eta inspirazioa, nondik?

Inondik [barrez]. Ez dut inoiz marrazkirik egiten, lantzen noan heinean sortzen da lanpara. Inoiz ez dakit behin betiko emaitza nolakoa izango den. Niretzat ere ezusteko dira.

Etxeko lanpara guztiak zuk eginak izango dira...

Guzti-guztiak ez, ez didate uzten! Saltzen ez diren asko etxean ditut, eta bereziki gustuko ditudan hainbat ere bai. Fluoreszente bati ere lanpara egin nion gainean.

Zure bizitzan argirik falta izan al zaizu inoiz?

Egia esan, ezin naiz kexatu, zentzu guztietan. Nahiko bizitza ona dut; argirik badu, bai, eta ez lanparengatik soilik.

Iluntasunak beldurra ematen al dizu?

Oso beldurtia naiz... Batzuetan ematen dit beldurra iluntasunak, baina ez bakardadeagatik; bakardadea beharrezkoa ere badela uste dut. Egoera eta une ilunek ematen didate niri beldur gehiago.

Zer da zuretzat argia?

Energia, goxotasuna, eguzkia, bizia... Bizitzeko beharrezkoa da.

Oso koloretsuak dira zure

IRITZIA ► JULIAN RODRIGUEZ (GAINDITZEN GORREN ELKARTEKO LEHENDAKARIA)

Zeinuen Hizkuntzaren ofizialtasuna

Gorra naiz. Ezin dut entzun, baina ikusi, usaindu, sentitu, pentsatu, imajinatu, sumatu, behatu... dezaket eta gainera hitz egin, ikasi, lan egin... dezaket. Azken finean, komunikatu naiteke.

XXI. mendean informazioaren eta komunikazioaren garaian bizi garela esaten dugu. Nola aurreratu dugun! Gaur egun pertsona elebidunak edo hiru hizkuntza dakizkitenak ezagutzea ez da harrizkoa. Are gehiago, edozein hezkuntza sistema prestigiodunak hizkuntza berrien ikasketa sustatzen du, aberasteko iturriak direla frogatu delako. Hala eta guztiz ere, oso pertsona gutxi dakite nire hizkuntza, Zeinuen Hizkuntza.

Daukadan komunikazio tresna garrantzitsuena da eta pentsatzen dudana eta sentitzen dudana mugarik gabe adierazten uzten dit. Hala ere, entzuleen gizartean keinu mimiko xumeetan oinarritutako hizkuntza pobrea dela uste dute, ideia faltsu hori dute.

Beste kulturetan bezala, Zeinuen Hizkuntza gorren komunitatearen eta nortasunaren ardatz nagusia da, horregatik gure elkarteetatik Zeinuen Hizkuntzaren onarpen ofiziala errebendikatzen dugu. Beste aukera batzuren artean, ofizialtasunak Zeinuen Hizkuntzako interprete zerbitzua jartzea bermatu beharko luke. Zerbitzu horrek pertsona gorrek gaindi-

tu behar izaten ditugun komunikazio oztopo asko konponduko lituzke: sendagilearengana hitzordu batera joatea, ikastaroetara joan, unibertsitatera... Ezinezko gauzak ez ditugu eskatzen. Askatasunez adierazi eta komunikatzea pertsona guztien eskubidea da eta horretarako beharrezko bitartekoak bermatu behar dira, are gehiago lortzeko errazak izanda.

Entzuten duten pertsonen neurria egindako munduan moldatzea konplikatu da, batez ere entzuten dizuten bakarrak gorak baldin badira. Baina gogor lan eginez proposatutako erronkak lortzen joan gaitetzkeela eta gehiengoak eta gutxiengoak topa gaitzkeen leku bat lor dezakegula badakit.

Sentsibilizazio Astearekin pauso txiki horietako bat eman nahi izan dugu Gainditzeko elkarteok, eta izan duen arrakasta ikusita, lortu dugula esan dezaket.

ONARPENA

«Gure elkarteetatik Zeinuen Hizkuntzaren onarpen ofiziala errebendikatzen dugu; interprete zerbitzua jartzea bermatuko luke»



Beterri Liburua, Atxagari

ASTEKO IRUDIA ► Bernardo Atxaga asteasuarrak jaso zuen ostegunean 2003 Beterriko Liburua Saria Villabonako Gurea zineman *Soinujolearen semea* lanagatik. Idazlea pozik agertu zen «beingoagatik, profeta» izan delako bere herrian eta hil berri den Mertxe Iztuetari liburuaren pasarte bat eskaini zion. Argazkian, Atxaga ekitaldiko une batean. G. AZKUE



LANDEI: GARRO / OARSOALDEKO HITZA

PERTSONALKI ►

► 1968ko ekainaren 10ean jaioa ► Tolosan ► Duela 6 bat urtetik Donostiako Altza-Larraxon bizi da, «Manhatan txiki bat» ► Auzo arrotza dela dio, baina, era berean, «lasaia, eta jende jator asko dago» ► Maiz etortzen da Tolosara; hemen lagun asko ditu, eta ez du haiekiko eta herriarekiko lotura galdu nahi ► Afizio eta ofizio du haren lana; horrez gain, lorezaintza ere asko gustatzen zaio.

BIZITZA

«Egia esan, ezin naiz kexatu, zentzu guztietan. Nahiko bizitza ona dut; argia badu, bai, eta ez lanparengatik soilik»



lanparak. Zure bizi-poza islatzen al dute?

Lanparak bezala, ni ere oso koloretsua naiz. Betidanik gustatu izan zaizkit kolore fuertak. Barre asko egiten dut, saiatzen naiz behintzat; eta nire ingurukoek ere barre dezentek egiten dute. Ona eta beharrezkoa iruditzen zait barrea bizitzan.

Esan al dezakegu askori bizia argitu diozula?

Inkonszienteki bada ere, nik uste dut baietz. Pertsona askorengandik jaso dut nik asko. Ematen didaten bezala, pentsatzen dut nik ere besteei on egin diedala, nahi gabe. Laguntasuna, adiskidetasuna..., lanparetatik haratago dago argia.

Nori oparituko zenioke lan-

para handi bat bere argitasun premia asetzeko?

Jende askori falta zaio argia. Izen batzuk bururatzen zaizkit... Baina, agian, horiei, argitasun premia handiena dute-nei, ez nieke lanpararik oparituko, ez dute merezi eta.

Zer argi du Euskal Herriak?

Argi asko du, baina pixka bat itzalita, higatu egin zaio. Denon artean egin behar dugu lan duen argi guztia ateratzeko.

Eta euskarak?

Baikor, itxaropentsu izaten saiatzen naiz beti. Maila batzuetan oso koloretsua da, indar handia du. Beste arlotan ez hainbeste. Baina, berez, uste dut argi asko duela. Nire inguruan, behintzat, bizia du.

MODA ▶

70. hamarkadako eragina aurtengo udaberrian: kolore biziak eta trikiniak nagusi

Barruko arropen modak ausardia aldarrikatzen du; gure eskualdera «gutxiago estaltzeko eta koloreen bizitasuna erakusteko ordua» iritsi dela diote adituek



Bainujantzi osoak, bikiniak eta trikiniak izango dira aurtengo eskualdeko erakuslehoietako eskaintza nagusiak. Koloretuak, gehienak. G. HERNANDEZ

OLATZ HERNANDEZ

Udaberrian gaude, egutegiak horrela dio, orain eguraldia jabetzea falta da. ea eguzkia zeruko jaun eta jabe bilakatzeko den behingoa. Aterkiak etosan gera daitezela, neguko zapata eta arropak armairuan ezkutu eta ez daitzeela iburuntzara ere auzartu, txanda amaitu zaie jada.

Teknologiaren aroan bizi bagara ere, eguraldia kontrolatzen da eta modaren gainetik, berak markatzen du zer jantzi eta zer ez. Dendetako erakuslehoiek udaberria aldarrikatzen

tzen dute eta dendariak bezeroen zain daude.

Udaberria kolore bizien urtaro da, barruko nahiz kanpoaldeko arropen. Laranja, horia, berdea eta marra koloredunak jantziak ikusi ahal izango ditugu, 70. hamarkadaren itzulerara.

Gaur egun ez daude lau urtaro, bi baizik: negua eta uda. Maiatzaren udaberri-udako arropak eta urtaruak aurrera negukoak erortzeko joera gero eta nabarmenagoa da, urtaro erdiak desagertuz batoz. Beraz, udaberriko modak hitz egi-terakoan, uda barne geratzen

da. Tolosako Nerea mihise dendako Eguzki Tobesen hitzetan, «barruko arropari dagokionean, formari garrantzia handia ematen zaio, arropa estus eramaten denez, markatu ez dezan». Betiko nuri eta beltzarekin batera, kolore bizietako aldagarriak modan daude, tirante turkesak, arrosa eta laranjek, kanpoko arropen bat egin dezaten saliatzen gara.

Hala ere, hemen gehiagi ez erakusteko ohitura nahiko nabaria dela adieraz digu Tobesek: «Bete tokitan eskotea eta erakusten duten arropa gehiago eramaten da, gaitzek ausar-

tzen dira tanga eta bularretakoan tirante koloredunekin, baina orokorrean kulturaren gaitik edo eguraldiaren gaitik, klasikoagoak gara».

Barruko arroparen munduan, estetika eta modak zeresan handia du. Ebaleta estetikoa direla medio, gorpuztara eraldatzeko aukera balaitzeko apustua egiten duenik bada eta honek erosteko orduan aldaletak sortu ditu. «Aldagietan denetarik entzuten dugu, bular handiak modan jarri dira, garai bateko 85 neurri atsegina, gaur egun toki geratu eta lezoro askok gehitu ala bi-

kitzeko ebakuntza egingo luke-tela esaten digute, mailko eta gutxi. Konplexu asko dagoen, adieraz du Tobesek.

Berrikuntza: trikini

Kolore bizi eta ausartekin batera, udaberri-udako modan bada aurtengo berrikuntzarik trikiniak. Bikiniak erabiltzeko gero eta joera handiagoa dago bainujantzi osoa baino. Igerilekura-ko osoa, hondartzarako bi pieza eta aurtengo. Berrikuntza al-ternatiba ere ikusi ahal izango digu nonahi. 70. hamarkada-ren eragin zuzena da trikiniaren fenomenoak, bainujantziak baino gutxiago estaltzen du, baina bikiniak baino gehiago.

Gutxiago estaltzeko eta gorpuztaren kultoa delako joeran, orain arte nahiko aharatuta egon den eremua lantzen da denboraldi honetan: haurrei naldirako bikiniak. «Bikiniak asko saltzen da kalitate oneko-ak dira, ondo heitzen eta irau-ten dute eta haurren dauden emakumeentzat behetako pieza atsegina da», dio Tobesek.

Garai bateko alpagodiaren gainetik, fibra naturalak sartu dira lenteriarren munduan. Akrilikoen gertatzen den mo-duan, naturalekin izerdik ez du arazo handirik sortzen eta iraupen aldetik ere oso ego-kiak izaten dira, ura garairako aproposak, beraz.

Barruko eta kanpoko arropen artean bereizteko handirik ez dago. Bietarako erabili dai-tezkeen elastikoak arrakasta handia dela esan du Tobesek, «barruko kamiseta izanda ere, niki bezala erabili baitaiteke; pi-xamekin berdin gertatzen da, askotan barruko eta kanpoko arroparen arteko mugak non dagoen ezin da esan».

Galiza piratadun pixamek eta kamio-ia koloretuak oso ondo sal-ten dira urtaro honetan. Era-bilera antzeko jantzi bihurtu dira; hondartzara joateko, lo egiteko edo etxean lasi egite-ko balio dute. Barruko arropen ausardia eta erorelen eta sal-tzaileen gogoa prestatu da, egu-ziaren laguntza falta da orain.



Takodunak eta takorik gabekoak, baina sport iburakoak dira oinetakoak denboraldi honetan. G. HERNANDEZ

OLATZ HERNANDEZ

Oinetakoen munduan, 70. hamarkadaren eragina bete-betean datorrela diote adituek. Udaberri-udan hasiko da kutsua eta negurako gutxi atxikidura egongo da. Zapaten modaren aldetik berrak aztertzeko amaioaren, Tolosa-ko Arri zapata dendako Jesus Mari eta Amaia Argana jo du Herak.

Nabarrutxo diren koloreak pistatxo, fukusia eta laranja izango dira, zuria eta beltza be-ti bezala tartekatuz. Bestalde, takoiak jaitseko joera hartu du, eta baita zapatak borobiltze-ko ere Jesus Marien hitzetan, «% 5 zapata borobila bazen au-rruko denboraldian, aurtengoan % 50 izatera pasatu da».

Zapatak, gaitse edo sport ku-tsua hartu du udaberri hone-tan. «Nahiz eta zapata jantzia izan, sport ukitua hartu du. Za-pata-zapatala antzeko asko iku-si ahal izango da». Moda berri hau gure eskualdean komeni-garritasoa ziola adierazi du Je-

‘Sport’ ukitua dute aurtengo oinetakoak

Pistatxo, fukusia eta laranja izango dira udaberri honetako zapaten koloreak

sus Mari, «eguneroko bizitza-rako aproposagoak» direlako. «Bontzatzenako eta janariz-tarako zapata jantziagoak sal-tzen ditugu, baina bereziagoak izaten dira; hau da, gutxiagotan jantziak».


Aurreko uda oso beroa izan zen eta dendan sandaliak ga-be geratu zitzen Arri zapata-dendakoak. Aurtengo berri- ez da eskatzen den oinetakoa, «aurreko izotza eta etxealdeak bi- bre duten zapatak dira jendea-

ri gehien interesatzen zaizkio-na». Zapata saltzaileak egu-raldiaurrean mende bizi direla ukatzen da. «Jendeak erakus-lehiora begiratzen du, baina neguko berriekin nola jantzi udako zapatak? Nahiz eta ezin, diote Arri dendako saltzaileak.

Udaberrian neguko zapatak jantzeria behartu gaitu egu-raldiak eta gehiengo handi batek, oporrak bitartean, ez die uda-ko oinetakoei kasu handiegirik egingo aurtengoan.

Kolore biziko arropak nagusi udara begira

Piratak, bakeroak... horiek izango dira batetik bat; gizonetakoentzat kamiseta alaiak datoz



Arropak ere kolore bizikoak izango dira uda aldean. OLATZ HERNANDEZ

OLATZ HERNANDEZ

Udaberria agurtzeko kolore biziz bustiko dira aurtengo arropak: laranja, horia, arrosa eta asko saltzen ari den ber-dea. Kimetz arropa dendako Juanjo adieraz duen bezala, «neakentzako galta berde asko saltzen ari gara, baita pi-ratik eta bakeroak ere».

Galza piratak izan arren, aurreko udakoak baino luze-agoak dira aurtengoak. Gehien salhen direnak koloreak eta finak badira ere, betiko ba-ke-roa arrakastatsua da, egu-raldiaren gorabeherak hobe ja-saten dituelako.

Barruko arroparen eta oi-netakoen gertatzen den mo-dua, 70. hamarkadaren eragi-na oso nabarmena da jantzi-eran. Arropa entailatua era-mango da, galza nahiz kami-setak. Alandora gutxi ibazteko

dugu eta txakertan, kremalle-ra eta lotura bereziak nabar-menduko dira, zuzenak izan beharrean, zeharkakoak edo goma eta kápekín.

Gizonetakoentzat, elastikoak

Galza motzak ez du presentzi handiegirik eta soinekoak, belusaren inguruko luzera-koak izango dira nabarmene-nak, ez oso motzak ez eta luze-ak ere, beti alai eta freskoak.

Gizonetakoentzat galza kolore-ak ez dira hain koloretuak, baina elastikoen bizitasunaz babesteko dira udaberri gmoa jortzeko. Bero-eritiko kamiseta koloretuak udaberria izango da aurtengo. Negu partean asko erabili den sudarek ez du bere protagonismoa gal-tzen udaberri honetan, baina txanoak galitzeko joera izango du, hori bai.

“Emakumezko zein gizonezkoen oinak zapata onenetan”

Oinetakoak • Konponketak

Tel.: 943 65 04 63
Nafarroa Etorbidea, 14 • 20400 TOLOSA

Iriarte

GERRUNTZE • LENZERIE

Korreo kalea, 7 • TOLOSA • Tel.: 943 67 03 27

IXABEL

Haur, emakumezkoen, gazteentzako eta osasunari

Irte, 18 • TOLOSA • Tel.: 943 67 02 77

MC

arropadenda

Emakumezko eta gizonentzako jantziak

Irte, 10 • Tolosa • 943 11 78 99

Lentzeria

Emakumezko eta gizonentzako jantziak

Irte, 10 • Tolosa • 943 11 78 99

ALAZNE

BOUTIQUE

Korreo kalea, 58 • Plaza Berri
Tel.: 943 11 71 81 • 943 11 71 82
20400 TOLOSA

Nagusia, 5 • Tel.: 943 36 32 46
20160 LASARTE-ORIA

KIMETZ

GAZTE ARROPA

Nagusia, 23 • TOLOSA • Tel.: 943 67 38 62

FUTBOLA ▶

Oruek hiru gol sartu arren ez zuen irabazi Tolosak

Hurrengo denboraldia buruan, jubeniletako bost jokalarari atera zituen entrenatzaileak

D. GIBELALDE

Oruek hiru gol sartu arren, irabazi beharreko partidua berdindu zuen atzo goizean Tolosak, Ordizian. Lehen zatian txukun aritu ziren tolosarrak, baina bigarrenengoan behera egin zuten. Azken minutuan, penaltiz, berdintzea lortu zuten etxekoek. Lehen zatian jubeniletako hiru jokalarari aitu ziren: Ibai, Aierbe eta Javi. Bigarrenengoan, beste hiru: Gari, Gaizka eta Gil. Izan ere, Gorka Etxeberria entrenatzailea hurrengo denboraldiari begira, jubenilekin probatzen ari da. Hurrengo astean ere bost jubenilekin ariko da Tolosa.

ORDIZIA ▶ 3

TOLOSA ▶ 3

Ordizia. De Marcos, Iraola, Gonzalez, Lekuona, Aramendia, Garmendia (Cardoso 45m.); Mujika, Mendez (Iraola 45m.); Clemente; Urdangarin (Odriozola 53m.) eta Intxausti.

Tolosa. Mujika, Leitza, Garmendia, Ibai (Gaizka 64m.); Gorka (Gil 73m.); Aierbe, Elola (Gari 45m.); Orue, Ekaitz (Ekaitz 45m.); Laguarda (Patxi 57m.) eta Javi.

Golak. 0-1: Oruek (15m.); 0-2: Oruek (37m.); 1-2: Etxeberriak (58m.); 1-3: Oruek (62m.); 2-3: Clementek (76m.) 3-3: Gonzalezek.

GORREN KOMUNITATEAREN I. SENTSIBILIZAZIO ASTEA ▶

Gorrek euren beharrak helarazi dizkiote gizarteari kongresuan

Jendetza izan zen atzo Gaintitzen elkartearen kongresuan; gorrek entzuleen komunitateari laguntza eskatu zioten



Eskuinean, Coorvisor-eko gerente Henar Pascual atzo, hitzaldia ematen. D. GIBELALDE

D. GIBELALDE

Jendetza bildu zen atzo Eskolapietean, Gorren Komunitatearen I. Sentsibilizazio Astearen baitan antolatutako kongresuan. Parte-hartze handiak gain, hitzaldi eta solasaldi desberdinetan jendeak erruz egin zituen galderak, norberaren zalantzak argitu nahian. Tolosaldea-Goierri Pertsona Gorren Elkarteak antolatutako ekitaldia baliagarria nahiz aberasgarria suertatu zen denentzat. Gorren komunitateak entzuleen komunitatearen laguntza behar duela jakinarazi nahi izan zuten.

Besteak beste, gorrek komunitatzeko, moldatzeko eta integratzeko jasaten dituzten zailtasunak ezagutarazi, haien egunerokotasunean moldatzeko beharrezkoak diren egokitzapenak azaldu, zeinu hizkun-

tzak duen garrantziaz ohartarazi eta gorren lan aukera urriagoak direla frogatu ziren.

Aurkezpenean, Tolosako alkate Jokin Bildarratz, Euskal Gorren lehendakari Oskar Fernandez eta Gaintitzen elkarte-ko lehendakari Julian Rodriguez izan ziren. Bildarratzek, besteak beste, gorrei erraztasunak emateko «politikak inplikatu» behar direla eta «gizarteak presionatu» egin behar duela esan zuen. Era berean, «PP orain gobernuan ez dagoela, ea zeinuen hizkuntza ofiziala izatea lortzen dugun, egitasmo horrekin gainerako alderdi guztiak ados baitzeuden» alipatu zuen.

Amaia Maortua pedagogoa, entzumen hizkuntza aditu eta Salamancako Gorren Kultur Zentroko Hezkuntza saileko koordinatzaileak eman zuen eguneko lehen hitzaldia. Go-

rrek irakurtzea eta idaztea nola hobetu dezaketen azaldu nahi izan zuen. Gorrentzat, «informazioa eskuratzeko, ikasteko, eta gizartearen nahiz lan merkatuan integratzeko erraztasunak hobetzea» dira, haren hitzetan, helburu nagusiak.

Gorren lan egoeraz eta lane-rako prestakuntzaz aritu ziren jarraian, Coorvisor-eko (Gorren Bizaiko Koordinadora) gerente Henar Pascual eta era-kunde horretako lan kudeatzaile Iñaki Fernandez. Coorvisor-ek gorrei euren garapen prozesuan (pertsonala nahiz gizartekoa) laguntzea du helburu. Gorrek lan munduan dituzten egoera desberdinak, testigantzak barne, ezagutarazi nahi izan zituzten.

Arratsaldean ere hitzaldi eta solasaldi gehiago izan ziren. Amaieran, zenbait ondorio atera zituzten.

AZOKA ▶

Hotzak eta euriak eragin nabarmena izan zuen atzo

Onddoak eta ziza horiak izatea espero dute saltzaileek datorren asterako

PABLO ALBERDI

Hotzak eta euriak eragin nabarmena izan zuen atzo azokan. Lehenengo orduetako erosle kopurua txikia izan zen; azkenengo orduetan go-ra egin zuen, ordea. Bestetik, produktu zerrendan ez genuen berritasunik ikusi, dirudieneg, eguraldiaren eraginez. Hala ere, eskaintza oso zabala izan zen. Esaterako, ia 400 kilo ziza izan ziren salgai. Datorren asterako, ondoko eta ziza horiak izatea espero dutela esan zuten saltzaileek. Barazkien zerrenda ere zabala izan zen.

ATZOKO AZOKA ▶

Zerkausia	merk.	gares.
Bertako produktuak		
Arkumea	3	3,2
Indiolarra	4,2	
Babarrun zuria	6	12
Tomatea	3	5
Babak	2	5
Arrautzak	1,3	2,1
Artisau opila	0,96	

Produktu ekologikoak	
Udarea	1,92
Sagarra	2,13
Intxaurrea	4
Hurra	4
Patata	1,52
Azenarioa	2,14

Berdura plaza	
Lilia	1,2
Japoniar aza	7,5
Konifera	6
Geranioa	2
Txilarra	4,5
Krabelina	4,8

hilberriak ▶

eskalak hartzen dira: 19:00ak arte • 687 53 02 58 • tolosa@tolosaldeko-hitza.info



Manuel Arrizabalaga Olano

(Jauna)

Atzo hil zen, 81 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Golan bego -

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela ASTELEHENEAN, arratsaldeko ZAZPIRETAN, Belauntzako SAN JUAN BAUTISTA parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea ▶ Iurreamendi egoitza
Oharra ▶ Gorpuren laguntza gaur izango da, 12:30ean, Belauntzako hilerria.

BELAUNTZA, 2004ko maiatzaren 9a



Promozioa eta eraikuntzak

Bizkai kalea, 2 - behea
20400 TOLOSA
Faxa: 943 69 71 98
Tel.: 943 67 21 72 - Mug.: 608 77 28 01

943 30 43 46

Edozein kexa, iradokizun edo kezka argitzeko deitu

www.tolosaldeko-hitza.info

▶ sar zaitetz eskualdeko web atarira ▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun zentroa:

943 65 32 12

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Berastegi-Elduain. Medikua:

68 33 61

Ibarralde. Etxea: 67 24 11

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Orendain. Medikua: 65 55 95

Tolosa.

▶ Ambulatorioa, larrialdiak:

46 11 11

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 943 67 25 36

▶ Gurutze gorria: 943 67 48 88

Villabona-Aiztondo.

Ambulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo: 69 39 30

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

▶ Taxia: 67 04 20

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Olarreaga. Martin Jose

Iraola, 10. (Tolosa). Tel: 943 67

24 38.

Bihar. Santa Maria. Nafarroa

etor., 2 (Tolosa). 943 65 46 10.

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_public@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona_aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoetaidea. 687 41 01 18.

anoetaidea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarralde. 687 41 00 32.

ibarralde@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegaldea@tolosaldeko-hitza.info

TOLOSA ▶ SEGURTASUNA

Ertzaintzak kirol poltsa susmagarri bat zartarazi du

Larramendi kaleko Gorostidi enpresaren atarian zegoen poltsa, eta badaezpada zartarazi zuten, baina bertan arropa besterik ez zegoen eta ez zen kalterik izan



Ertzain bat ustez lehegailua zuen poltsa eramaten. BIANDITZ IRAOLA

I. ETXEBESTE / B. IRAOLA

Tolosako Larramendi kalean dagoen Gorostidi enpresaren atarian kirol poltsa susmagarri bat atzeman zuten atzo goizean, eta norbaitek Ertzaintzari abisua eman zion. 11:40ak inguruan artezilariek ailegatu ziren, eta Larramendi kalea autobiako irteeratik Vohit lantegiaren pareraino itxi zuten.

Propio trebatutako zakurrekin poltsa arakatu zuten, baina zakurren lana ez zen nahi bezala atera, eta ez zuten ezer arrarorik usaintzerik izan. Hori dela eta, poltsak lehegailurik balu edo, amua jartzea erabaki zuten Ertzaintzako artezilariek.

13:00ak aldera kontrolatuta-

ko leherketa txiki bat egin zuten, eta jarraian poltsaren hondakinak lekutik eraman zituzten, behar bezala aztertu ahal izateko.

Azkenean poltsan ez zegoen lehegailurik, arropa besterik ez zegoen, eta berehala ireki zuten kalea berriro. Ertzaintzak kontrolpean egindako leherketak, gainera, ez zuen inolako kalte materialik eragin.

Honenbestez, 13:30ak alde-
ra, eta ia bi orduz itxita egon ondoren, Larramendi kalea trafikoari ireki zitzaion berriro. Ertzaintzako artezilariek gain, DYA eta Gurutze Gorriko anbulantzia batzuk ere joan ziren, poltsa zegoen lekura, baina ez zen haien beharrik izan.

ALKIZA ▶

Ereski abesbatza mistoaren kontzertua

Donostiako Ereski abesbatzak emanaldia eskainiko du gaur goizean elizan. 11:30etik aurrera izango da, eta Migel Zeberioz zuzendutako taldeak kanta herrikoiak zein elizakoak abestuko ditu. Euskal Herriko ez gain, mundu zabaleko abestiak ere izango dira, Austrialiakoak eta suediarak, kasu.

IBARRA ▶

Oihulari Kown-en 'Divinas', ostiralean

Kaxkubi Ibarako Emakumeen elkarteak antolatuta, Oihulari Klowen antzerki taldeak *Divinas* izeneko antzez-lana taularatuko du datorren ostiralean, hilak 14. Emanaldia 20:00 etan hasiko da, Ibarako Benito Izagirre Kultur Etxean. Oihartzun handiko antzez-lana da ostiralean taularatuko dutena.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Baseria. Leaburun baserria salgai, 2001 urtean erabat berritua. 3.000 m2ko terrenoa, fruitu-arbolekin. Telefonoa: 649 26 85 44.

Etxea. Iurramendi ibiltokian familiabakarreko etxea salgai. 3 solairu, garajea, bi terraza eta bi lorategi. 667 98 69 16.

LANA

Emakumea. Emakume bat behar dugu etxeko lanak eta haur bat zaintzeko. Tel: 943 67 58 95 (19:00etatik 21:00etara).

Pelukera. Pelukera esperientziaduna, titulatu, eskaintzen da etxetan lana egiteko.



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Hernialde. Erniopeko zortzi herrien arteko IV.mendi ibilaldia.

Tolosa. Tolosan bizi diren ataurdarrek afari bat egin behar dute maiatzaren 28an 21:00etan Fronton jatean. Parte hartu nahi dutenek 943 652941 telefonora dei dezakete.

Tolosa. IMSERSoren oporretarako izen-ematea Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuan, Harizpe elkarte eta Aldundiko Zentro Gerontologikoan eman behar da hilaren 14a bitarte.

Tolosa. XIV Orduko Ibilaldirako izen-ematea 10:00-13:00 eta 16:00-19:00, Aralarko Adiskideen egoitzan (Araba 5, behe, Tolosa).

Tolosa. Autobus bereziak Santa Klaratik Asuncion klinikara: bihar, goizez 7:45etik 13:15era eta arratsalde 16:45etik 20:45era. Ordu erdiero, laurdenetan eta laurden gutxietan.

BIDEO-EMANALDIA

Zizurkil. Lurraldeko eskualde hotzetatik proiektzioa Juan Vallejoaren eskutik. Etzi, 20:00etan Abulondo kultur etxean.

ERAKUSKETAK

Alegia. Alejandro Gonzalezen

margoak ikusgai Jubilatutik Elkartean: olioak eta akrilikoak.

Alegia. Hilaren 14an Miarritz aldera egingo den irteerara era joateko izen-ematea bihar, Jubilatutik elkartean, 11:30ean. 20 euro ordaindu behar dira izena ematerakoan.

Hernialde. Olivia Sanchezen akuarela Ostatuan.

Ibarra. Nazio Mailako III. Pegatina Mostra Gaztean 19:00etatik 21:30era, gaurtik hilaren 16ra. Urtero herrialde ezberdinean ospatzen den Pegatina bildumazaleen topa-festaren baitan.

Orendain. Helduentzako gimnastika saioak, Rakel Baz fisioterapeutaren eskutik. Biher, Erretore Etxean, 16:00etatik 17:00etara.

Tolosa. Anjel Cuadoren argazki erakusketa Aramburuko Jauregian ekainaren 12a bitarte.

Tolosa. Kubako haurren marrazki erakusketa gaurtik hilaren 14ra Kultur Etxean. **Tolosaldea.** Xakean jokatzeko aukera Irura eta Anoetako gazteentzat bihurtik hilaren 15a arte. Parte hartzeko izena eman behar da aurretik, Irurako eta Anoetako udalarekin edota Anoetako Ikastolan.

IKASTAROA

Tolosa. Zeinuen hizkuntza ikastaroa, Gaingitzen elkartek antolatuta, Immaculada ikastetxean. Informazio gehiago ikastetxean (943 67 36 29).



Festa alternatiboen aurkezpena

ANOETA ▶ Ekainaren 5ean eta 6ean, eta 9tik 13ra egitekoak diren festa alternatiboak aurkeztu zituen atzo horretarako sortutako batzordeak. Batzorde honen esanetan, EAJ-EA koalizioak orain urtebete alkatetza hartu zuenetik legez kanpo utzitako plataformak ordezkatutako herritarrak albo batera utzi ditu. Gazteen etxebizitza eskubideekin jolas egitea leporatzen dio, eta AHTaren auzian informazioak ez ematea. Horregatik guztiagatik, «herritar guztiak bilduko dituen festa» antolatu nahi dituzela diote. BIANDITZ IRAOLA

KIROLA

GAUR ▶

Futbola.

▶ Eibartarrak-Danena (15:00, Unbe, Lurraldekako 2. Kopa).

Futbol 7.

▶ Zardoya Otis-Lanbroa Dickens (10:00, FelixGarin 1, 1. maila A).

Tolosa Kup.

▶ 13:00: L. pix/Lokomotiv.
 ▶ 13:45: Egoki/Iñaki Falkon.
 ▶ 14:30: Juvenil/Egunkaria.
 ▶ 15:15: Hawaii/Plaza Nueva.

▶ 16:00: Enara/Ioniko.
 ▶ 16:45: Amaro/Azkar.
 ▶ 17:30: Kupelzaleak/Izuli 1.
 ▶ 18:15: Kupela/Garikoitz.
 ▶ 19:00: Kontra k.j./Popesku.
 ▶ 19:45: Begi Gorri/Magreb
 ▶ 20:30: A ke no10/S. Pang.
 ▶ 21:15: Eguzki/Tantogorri.

▶ 16:00: Transp. Esc./Orbela.
 ▶ 16:45: Maskor/Errekalde.
 ▶ 17:30: MattinG./The patix.
 ▶ 18:15: Ikatz/Yogurines sp.
 ▶ 19:00: Ieltxu/Astesuarra.
 ▶ 19:45: Bikutz/The apalantx.

ZINEMA

Tolosa. *La ventana secreta*, Leidorren, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean. Biher, 19:30ean eta 22:30ean

BIHAR ▶

Tolosa Kup.

▶ 15:15: Neskak/Cafe Iruña.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Julen Jauregi (Belauntza).
 Biher 5 urte. Zorionak amona, izeba, anaia eta gurasoen partetik.



URTE ASKOAN
 Irati Irazusta (Anoeta).
 Gaur 3 urte. Aitaboa eta amaboren partetik.



URTE ASKOAN
 Amaia (Anoeta).
 4 mura potolo familia guztia partetik.



ZORIONAK
 Ane Balerdi Irizar (Altzo).
 Lasai Julieta, oraindik ez da etorri Romeo. Lizartzako familiak.

